

I CAN'T BREATHE

Karla Loinaz

Errenteria

Maiatzaren 25a zen, besteek bezalako egun arrunta zirudien, zerua ia argia zegoen eta, kontatu zenidan bezala, zeruan zegoen hodei bakarretako batek untxi forma zuen. Gosaltzera joan ginen hirurok batera, ama, zu eta ni. Oso ondo gogorazten dut gosaldu genuena. Amak, gauean, *pancake*-ak egin zituen eta hori gosaldu zenuten biek kafearekin batera; nik, berriz, ez nuen hura gosaltzeko gogorik, orduan *bowl* batean esnea bota nuen eta neure zereal gustukoenak gehitu nizkion.

Astelehena zen, eta zu etxean zinen nirekin. COVID-19aren pandemiak lan gabe utzi zintuen; segurtasun funtzionarioa ez ezik, kamioi-gidaria ere bazinen. Baina birus hori mundura iristean, bi lanek huts egin zizuten eta etxean gelditu zinen nirekin batera, amak lana egiten zuen bitartean. Nire gelara joan ginen eta arropa janzten lagundu zenidan, gaua bezain ilunak ziren *leggings* beltz batzuk, loredun kamiseta more bat eta zapatila erosok aukeratu genituen bion artean. Ondoren hortzak garbitzera joan ginen, beti laguntzen zenidan

lan haietan, ezin nuelako neure kabuz egin, izan ere, gazteegia nintzen. Bazkaria motxilan sartu, eskolarako behar nuen guztia hartu eta kotxean sartu ginen biok. Eskolara bidean abiatu ginen, laguna bere etxetik jaso ondoren.

Lagunak Katie izena du eta horren gurasoak eta geureak oso lagunak dira herri honetara etorri ginenetik, asko lagundu diote elkarri. Katie azal zuri, begi urdin eta ilehoria da; horrek nirekin kontraste handia egiten du, ni beltzarana eta ile beltzekoa bainaiz. Eskolara bidean, egun hartako ordutegiaz hitz egin genuen hirurok eta gutxi gorabehera hamar minuturen ondoren, atean utzi gintuzun. Eraikina zaharra zen, adreilu marroizkoa; ez zen institutua bezain handia, han ez guelelako denbora asko igarotzen. Irakasleak hamar urtetik beherakoak ginen.

Katie eta biok eraikinean sartu eta gelara joan ginen. Lehenengo ikastorduan matematika genuen eta bi digituko batuketak eta kenketak egiten ikasi genuen. Irakasleak arbelean irudi batzuk egin zituen ikaskideok gaia hobeto ulertzeko, eskuak mugituz hobeto adierazi nahian. Badakizu, aita: matematikak asko gustatzen zaizkit, trebea naiz zenbakiekin eta pentsatuko duzunez, eragiketa horiek oso errazak ziren niretzat. Gainera, irakaslea atsegina-atsegina zen eta azalpenak oso ondo ulertzen zitzaizkion.

Hurrengo orduak ez zuten garrantzi handirik, beraz, oso azkar pasatu zitzaizkidan eta bazkalordua iritsi zen. Bazkaria atera nuen, egun hartan

ogitarteko bat, sagar batekin eramán nuen, eta nire lagunekin eseri nintzen bazkaltzera. Normalean denok berdina eramaten dugu, sinplea eta janerraza delako. Bi ordu beranduago atera ginen eskolatik eta egun guztia libre zenuenez, zu etorri zinen geure bila.

Katie etxean utzi ondoren, gurera joan ginen eta goizean soberan geratu ziren *pancakeak* eztiáz meriendatu genituen. Bioi gustatzen zaigun bezala, gabonetako film bat jarri genuen, ia uda izan arren. Film hura gustukoena genuen, *The Grinch* izenekoa, jada jakingo duzu zein den, hamaika aldiz ikusi dugu eta. Lehenengo bost minutuetan *pancakeak* bukatu genituen eta filmetik geratzen zen denboran ezer jan gabe egon ginen elkarrekin goxo-goxo. Asteko erosketa egin beharra zegoen, baina horretaz ama arduratzen zen.

Zortziak hamar gutxi inguruan buelta bat egitera joan zinen, ama etxera ailegatu zen puntuan. Egún osoa etxean eman zenuen eta airea hartu nahian atera zinen. Huraxe ikusi zintudan azken aldia.

Kontatu zidatenez, *Cup Foods* dendara joan zinen zigarro-pakete baten bila, ohiko bezeroa zinen. Baina espero ez zenuen bezala, normalean zerbitzatzen zintuen dendaria ez zegoen. Ordaintzeko orduan, ordezkook hogeí euroko billetea faltsua zela esan zizun, seguruenik zuk ez zenekien nola ailegatu zen billete hura zure poltsikora. 911 zenbakira deitu zuen. Eztabaidan jarraitu zenuen, baina polziak iritsi ziren eta borontatearen aurka

atxilotu egin zintuzten. Poliziei egia esaten saiatu zinen, baina ez zuten entzun nahi. Ahuzpez eratzan zintuen Derek Chauvin izeneko poliziak eta belauna lepo gainean jarri zizun arnasa estutuz. Behin eta berriz *I can't breathe*, hau da, «ezin dut arnasarik hartu» esaten zenuen, baina Chauvin jaunak ez zuen belauna baztertu. Zazpi minutu gutxi gorabehera igaro ziren konortea galdu zenuen arte, eta ez zenuen bizi-arrastorik erakusten baina, gizonak txarrean jarraitu zuen, halere.

Guztira zortzi minutu eta berrogeita sei segundo iraun zuen belaunak zure lepo gainean. Egun hartatik aurrera arrazismoaren aurka manifestazioak eta protestak egin dira. Ez zait egun bakarra ere pasatzen, hortzak garbitzean, hor egon beharko zenukeela pentsatu gabe; ez zait egun bakarra ere pasatzen, *The Grinch* ikusten dudan bitartean, matrailetatik behera malkoak erori gabe; eta batez ere, ez zait minutu bat bera ere pasatzen zure presentziaren falta sumatu gabe. Espero dut zerurainoko bidaia ongi egin izana, eta gogoan hartu, hil arte ez diodala borrokatzeari utziko; ez nik, ezta gure ingurukoek ere. Maite zaitut, aita!